

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1998-99ko IKHAS URTEA.

DELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

- 1 - Zertaz kez-u da idazki hunen egilea?
- 2 - Zertaz nahiago du mintzatzea?
- 3 - Idazki hunen egilearen donboran arifhatua zona eskualdea?

II

BADAKIGU ESQUARA 1

Utz ditzagun egun bazterrerat politikazko solasak. Ah! Zer atsegina, bethi ere uzten ahal bagintu! Bakhan baitugu ordean artea, gure gogorako gauzez... eta gizonez mintzatzeko.

Egiazki nardagarri da eta okhastagarri egungo eguneko ez-eta-baiak ikhusiz, aste oroz mintzatu behar izaita. Gogoan duzun .ra kasik ezin erran, gerla phiztu gabe. Gogoaren kontra ere labainan ez nahi mintzatu, asko mintzo diren bezala. Lanak dire. Zer izanen da? Goazin bethi, Jainkoak nahi dueno, eta jo hobere-netik!

Ez da erraiteko baizik langile guziek astean ortzirale bat ba-lin-badute, guk ere badugula bethi bat, eta ardurago biga. Halere bethi esker eta laguntza baino beltzuri gehiago hiltzen... Bainan zer derasat? Egun gaixto anhitzen artean hadituzkegu oren on zenbeit ere; hala nola baitire gure sor-herriaz eta sor-mintzaiaz elgarekin solasean deramatzagunak. Bai Eskual Herriaz eta es-kualdun mintzai zahar huntaz herritarrekin solas egitea da gure gozamen gozoenatarik bat.

Dugun beraz goza zorion hori, ahal dukegun oroz, hala nola egun. Zer nahi duzue erran dezazuetedan¹ eskuara huntaz? Hur-bil eta urrun, orotan azkarki aiphatua da eskuara, bereziki azken hamar urthe hautan. Luze edo labur, xuxen edo makhur, asko elhe eta erasia baderabilate gutaz eta gure mintzaiaz gizon argituek.

Egiazko jakintsunak baizik ez balire mintzo, ongi laiteke; bai-nan halako baten ondotik zenbat elhe-untzi² ez dire ikhusten eta entzuten, deus jakin gabetarik ttar-ttar-ttar³ ari: hau dela, hura dela.

ADITZ IKASKUNTZA

- | | |
|--------------------|------------------|
| 31. Utz ditzagun | 32. Zer derasat |
| 33. Badituzkegu | 34. Dezazuetedan |
| 35. Deramatzagunak | 36. Baderabilate |

31. UKAN. Imperatif

Objet singulier	Objet pluriel
Hik Ukan zak = aie - le	Ukan z kik (m) = aie - les
Zuk - " - zazu = ayez - le	- " - zkitzu (zaitzu) = ayez - les
Harek - " - beza = qu'il l'ait	- " - bitza = qu'il les ait
Guk - " - dezagun = ayons - le	- " - ditzagun = ayons - les
Zuek - " - zazue = ayez - le	- " - zkitzue (zaitzue) = ayez - les
Heiek - " - bezate = qu'ils l'aient	- " - bitzate = qu'ils les aient

32. ERASI: JASER, BAVARDER: Indicatif Présent

Nik derasat = je jase
Hik derasak (m) = tu jases
Zuk derasazu = vous jasez
Harek derasa = il jase
Guk derasagu = nous jasons
Zuek derasazue = vous jasez
Heiek derasate = ils jasent

33. UKAN. Potentiel probable.

<u>Cplt direct singulier</u>	<u>Complément direct pluriel</u>
Nik duket = je peux l'avoir	N. dituzket = je peux les avoir
Hik dukek (m) = tu peux l'avoir	H. dituzkek (m) = tu peux les avoir
Zuk dukezu = vous pouvez l'avoir	Z. dituzkezu = vous pouvez les avoir
Harek duke = il peut l'avoir	H. dituzke = il peut les avoir
Guk dukegu = nous pouvons l'avoir	G. dituzkegu = nous pouvons les avoir
Zuek dukezu = vous pouvez l'avoir	Z. dituzkezu = vous pouvez les avoir
Heiek dukete = ils peuvent l'avoir	H. dituzkete = ils peuvent les avoir

35. EREHAN-ERAMAN: Emporter, emmener, conduire.

Indicatif Présent

N. Deramat = je l'emmène
Hik Deramak (m) = tu l'emmènes
Zuk Deramazue = vs l'emmenez
Harek Derama = il l'emmène
Guk Deramagu = ns l'emménons
Zuek Deramazue = vs l'emmenez
Heiek Deramate = ils l'emmènent